

32. artikulua.– Autonomian Sakontzeko Proiektua.

33. artikulua.– Ikastetxe publikoen autonomian sakontzeko proiektuak lantzeko eta baimentzeko prozedura.

34. artikulua.– Ikastetxe publikoen autonomian sakontzeko proiektuak ebaluatzea eta haien kontu ematea.

## V. KAPITULUA

### IKASTETXE PUBLIKOEN AUTONOMIAN SAKONTZEKO PROIEKTUA

#### 32. artikulua.– Autonomian Sakontzeko Proiektua.

1.– Ikastetxeko Hezkuntza Proiektuan xedatutakoa errespetatu eta hezkuntza berriztatzeko proposamen bat egiten duten ikastetxe publikoei aplikatzen zaie Autonomian Sakontzeko Proiektua. Proposamen horretan jasoko dira esparru pedagogikoan eta curriculumean hartu beharreko erabaki bereizgarriak, bai eta antolaketan, kudeaketa ekonomikoan eta langile-kudeaketan hartu beharrekoak ere, irakaskuntza-prozesuak eta ikasleen emaitzak hobetzeko asmoz.

Gainera, Autonomian Sakontzeko Proiektuak, orobat, kontuan hartuko ditu curriculumaren kudeaketa –ikaslearen egiazko premietara egokitu dadin–, antolaketa-moduak eta bizikidetzara-arauek, eskola-egutegia zabaltzea edo ikasgaien ordutegia aldatzea.

2.– Hezkuntza-eskumenak dituen sailak ikastetxeen autonomia indartu eta sustatuko du, ikastetxearen baliabide ekonomikoak eta materialak eta giza baliabideak Autonomia Proiektura egokitu daitezzen.

3.– Ikastetxeen kalitatea sustatze aldera, Hezkuntza-eskumenak dituen sailak baliabide gehiago izendatu ahal izango ditu ikastetxe publiko batzuentzat, baldin eta burutu behar dituzten proiektuen eta eskolatutako ikasleen baldintzen arabera egoki baderitzo. Baliabideen izendapen hori emateko baldintza izango da kontuak ematea eta baliabideak behar bezala erabili direla justifikatzea.

#### 33. artikulua.– Ikastetxe publikoen autonomian sakontzeko proiektuak lantzeko eta baimentzeko prozedura.

1.– Autonomian sakontzeko proiektu bat ezarri nahi duten ikastetxeek baimena eskatu behar dute, hezkuntza-eskumenak dituen sailak ezarritako prozeduraren arabera.

2.– Ikastetxeko zuzendaritzak Autonomian Sakontzeko Proiektua egingo du, irakasle-klaustroaren proposamena kontuan hartuta.

3.– Autonomian Sakontzeko Proiektua baimentzeko eskaera egiteko Ordezkaritza Organo Gorenaren onarpena behar da, eta bertan aipatuko dira, gutxienez, Autonomia Proiektuaren helburuak eta xedea, bai eta curriculum-proposamena eta ikastetxearen antolaketa-proposamena ere (hau da, ordutegi orokorra eta eskola-ordutegia, Autonomia Proiektua zer kurtsotan ezarri nahi den eta horren arrazoiak, eta horretarako eskatutako baliabideak).

4.– Hezkuntza-eskumenak dituen sailari dagokio autonomian sakontzeko proiektuak baimentzea, eta haiek sustatzea, halakoak garatzen dituzten ikastetxeentzako laguntza-plan baten bidez. Aurkezten diren proiektuak baimendu aurretik, langileen kudeaketan gaineko eskumenak dituen organoak eta baliabide ekonomikoaren kudeaketan eta kontratazioan eskumenak dituen organoak proiektuei buruzko txosten loteslea egingo dute.

#### 34. artikulua.– Ikastetxe publikoen autonomian sakontzeko proiektuak ebaluatzea eta haien kontu ematea.

1.– Hezkuntza-eskumenak dituen sailak ezarriko ditu autonomian sakontzeko proiektu bat abian jarri duten ikastetxe publikoek beren emaitzen kontu emateko adierazleak. Horretarako, aintzat hartuko da, besteak beste, ikasleen ikaskuntza-prozesua, batik bat banakako eta amaierako ebaluazioetan lortutako emaitza akademikoak eta hezkuntza-komunitatearen parte-hartzea eta asebetetze-maila.

2.– Autonomia Proiektuaren barruko ebaluazioa eta ondorengo kontu-ematea egiteaz irakasle-klaustroa arduratuko da, zuzendaritza-taldearen koordinazioaren pean. Ikastetxearen urteko memorian jasoko dira ondorioak, eta aurreikusita egongo da ondorio horiek nola helarazi hezkuntza-komunitateari.

3.– Autonomian Sakontzeko Proiektuaren kanpo-ebaluazioa Hezkuntza Ikuskaritzaren ardura izango da. Proiektuaren helburuen lorpen-maila zehazteko beharrezkotzat jotako jarduerak sartuko dira hor, hezkuntza-eskumenak dituen sailak proiektuaren jarraipena bermatzeko behar diren erabakiak hartu ahal izan ditzan.